

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Azaroaren 22ko 2239/2019 ebazpena, zeinaren bidez onartzen baita salgaiak edo bidaiariak errepidez garraiatzeko ibilgailu jakin batzuen gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen gidarien gaitasun agiria lortzeko proben 2020ko deialdia, oinarri arautzaileak eta egutegia

Uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuak, errepide bidezko garraiorako ibilgailu jakin batzuen gidariek izan beharreko hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea arautzen dituenak, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 15eko 2003/59/EE Zuzentarauarekin, ezinbestekotzat jotzen du C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D, D+E kategorietako gidabaimena duten gidariek Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko, Europar Batasuneko edozein estatu kidetan kokatutako enpresen ibilgailuak Espainiako bide publikoetan zehar gidatu ahal izateko. Hasierako prestakuntza egiaztatzen duen agiri hori eskuratzeko, gidariek Errege Dekretuan jasota dauden gaietarako buruzko azterketa gainditu behar dute.

Bestalde, Errege Dekretuko 15. artikulua arabera, bidaiarien eta salgaien eskatu ahalako garraio publikoa gauzatzeko baimenak emateko eskumena duten lurralde horretako erakundeei dagokie probak antolatzea. Arabako Lurralde Historikoan, Arabako Foru Aldundiak du eskumen hori gauzatzeko betebeharra, hala xedatzen baitu Estatuak errepide eta kable bidezko garraioari buruz dituen ahalmenak autonomia-erkidegoen esku uzten dituen uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarriak, haien erregimen bereziaren alde egiten duenak, eguneraketak gorabehera.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri baitziren 2019-2023 agintaldirako, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari esleitzen dizkio garraio arloko eskumenak. Halaber, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuko 18. artikulua, foru diputatuaren deskontzentrazioa dela eta, Bide Azpiegitura eta Mugikortasun zuzendariari esleitzen dio gidarien gaitasun agiria lortzeko azterketen deialdia egiteko eta emaitzak argitaratzeko eskumena. Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2020. urtean Gidariaren Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko probak egiteko deialdia; agiri horren bidez egiaztatzen da gidariaren hasierako prestakuntza, zeina ezinbestekoa baita Espainiako bide publikoetan gidatzeko C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak behar dituzten ibilgailuak (l. eranskinean daude).

Bigarrena. l. eranskinean jasota dauden oinarri arautzaileak eta azterketa egutegia onestea.

Hirugarrena. Epaimahaiko kideak izendatzea, deialdi hau arautzen duten oinarrietan jasotako osaeraren arabera. Epaimahai bakarra izango da ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren proba guztietan.

Laugarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila.

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea, eta, beraz, interesatuek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahaliko diote Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru

diputatuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 22a

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

I. ERANSKINA

2020AN GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA) ESKURATZEKO PROBAK EGITEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA AZTERKETA EGUTEGIA; AGIRI HORREK EGIAZTATZEN DU SALGAIK EDO BIDAIARIK ERREPIDEZ GARRAIATZEKO IBILGAILU JAKIN BATZUEN GIDARIEK BADUTELA HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Lehena. Proben helburua

1. Dei egiten da bidaiariak eta salgaiak errepidez garraiatzeko ibilgailu jakin batzuen gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortzeko Arabako Lurralde Historikoan 2020an egingo diren probetarako.

2. Sei azterketa deialdi izango dira, jarraian zehazten diren egunetan, bai D1, D1+E, D y D+E kategorietarako, bai C1, C1+E, C y C+E kategorietarako.

3. Probak honako egun hauetan egingo dira:

- Lehenengo deialdia: 2020ko urtarrilaren 31, ostirala.
- Bigarren deialdia: 2020ko martxoaren 27a, ostirala.
- Hirugarren deialdia: 2020ko maiatzaren 29a, ostirala.
- Laugarren deialdia: 2020ko uztailaren 17a, ostirala.
- Bosgarren deialdia: 2020ko irailaren 25a, ostirala.
- Seigarren deialdia: 2020ko azaroaren 27a, ostirala.

4. Azterketak 10:00etan hasiko dira eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UNED) Gasteizko egoitzan egingo dira: Pedro Asua kalea 2.

Bigarrena. Hautagaien betekizunak

1. Onartua izateko, hautagaiak honako betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Aginduzko ikastaroak, ohikoak zein trinkoak, gainditu izana azterketan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epearen amaiera baino lehenagoko 6 hilabeteetan, uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz. Horiek gainditu izana 1032/2007 Errege Dekretuaren 12.3 artikuluan adierazitako ziurtagiriaren edo komunikazio telematikoaren bidez egiaztatuko da.

b) Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik, Arabako Lurralde Historikoan izatea ohiko egoitza, aginduzko ikastaroa non egin den gorabehera, salbu eta deialdia egiten duen erakundeak, behar bezala justifikatutako kausak direla eta, baimena beste lurralde batean eman badio.

2. Deialdi bakoitzean parte hartu ahal izateko, ordaindu behar da Aurrekontua Exekutatzeari buruzko Foru Arauak azterketan parte hartzeko eskubidearen tasa gisa 2020rako ezartzen duen zenbatekoa.

Hirugarrena. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua

1. Eskaerak Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dira, webgune honetan: sede.fomento.gob.es. Arabako Foru Aldundiak ere Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikoaren estekak gaituko ditu bere webgunean: www.araba.eus.

2. Izena emateko epeak honako hauek izango dira:

DEIALDIA	ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA	PROBAK ZEIN KATEGORIATARAKO DEITZEN DIREN
1.	2019ko abenduaren 26tik 2020ko urtarrilaren 17ra	Bidaiariak eta salgaiak
2.	2020ko otsailaren 24tik martxoaren 13ra	Bidaiariak eta salgaiak
3.	2020ko apirilaren 23tik maiatzaren 15era	Bidaiariak eta salgaiak
4.	2020ko ekainaren 15etik uztailaren 3ra	Bidaiariak eta salgaiak
5.	2020ko abuztuaren 24tik irailaren 11ra	Bidaiariak eta salgaiak
6.	2020ko urriaren 26tik azaroaren 13ra	Bidaiariak eta salgaiak

Bankuan tasa ordaindu izanak ez du inola ere ordeztuko eskabide orria egoitza elektronikoaren bidez garaiz eta behar bezala aurkeztu beharra.

Laugarrena. Hautagaiak onartzea

1. Probetan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da eskatzaileak beteta izatea eskatzen diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta haiek aztertu eta gero, Arabako Foru Aldundiak onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko du bere webgunean. Bazter utzitakoen kasuan, bazter uzteko zein arrazoi izan den adieraziko da. Bazter utzitakoek eta zerrendetan agertzen ez direnek edo, agertuta ere, okerreko datuekin agertzen direnek, 5 egun baliodun izango dituzte, behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aurkeztu beharreko erreklamazioak aurkezteko eta hutsak zuzentzeko, Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez.

3. Erreklamazioak ebatzi eta hutsak zuzendu ostean, Aldundiak onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda argitaratuko du bere webgunean. Bazter utzitakoen kasuan, bazter uzteko zein arrazoi izan den adieraziko da.

Bosgarrena. Azterketara aurkeztea

Onartutako hautagaiak NANA (indarrean) edo beren nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizialen bat eraman beharko dute probetara. Ez badute halakorik aurkeztzen, ezin izango dute probetan parte hartu.

Seigarrena. Probak egitea

1. Probetako ariketak, egitura, kalifikatzeko modua eta jakintza arloak uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuak, errepideko garraiorako ibilgailu jakinen gidarien hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea arautzen dituenak, ezarritakoak izango dira.

2. Azterketan test erako 100 galdera izango dira, eta aukerako lau erantzun; galderak uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuko I. eranskineko A apartatuko 1. edo 2. ataleko gaien ingurukoak izango dira, egiaztatutako gidabaimenaren arabera. 25 galdera 1.4, 2.2 eta 3.7 helburuei buruzkoak izango dira, azterketaren programa I. eranskineko 1. atalekoa baldin bada, eta 1.4, 1.5, 2.2 eta 3.7 helburuei buruzkoak, baldin eta azterketaren programa 2. atalekoa bada.

3. Edonola ere, azterketan I. eranskineko A) apartatuko kasuan kasuko atalean jasotako xede bakoitzari buruzko galdera bana egongo da gutxienez.

4. Azterketak 2 ordu iraungo du, gutxienez.

5. Erantzun zuzenengatik puntu 1 emango da, eta okerrengatik 0,5 puntu kendu. Erantzun ez diren galderengatik edo erantzun bat baino gehiago dutenengatik ez da punturik emango, ez eta kenduko ere.

6. Lor daitezkeen puntu guztien erdia lortu beharko da, gutxienez, gainditzeko.

Zazpigarrena. Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Titularrak:

– Lehendakaria: Estíbaliz Ruiz de Eguino Gamarra Mayor.

– Idazkaria: Marta Virginia Ruiz Jiménez de Vicuña.

– Epaimahaikideak: Beatriz Muñoa Murguiondo, Marta Gauna López, Estíbaliz Peña Fernández.

Ordezkoak:

– Epaimahaiburua: Begoña Díaz Aisa.

– Idazkaria: Ainhoa Asin Gil.

– Epaimahaikideak: Rocío del Río Del Valle, Marta Virginia Ruiz Jiménez de Vicuña, Idoia Saralegui Martínez.

Zortzigarrena. Azterketen emaitzak

Behin ariketak zuzenduta, epaimahaiak Aldundiaren webgunean argitaratuko ditu behin-behineko emaitzak: www.araba.eus.

Bost egun balioduneko epean, egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izango dituzte interesdunek, eta behin horiek ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak onartuko ditu Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko zuzendariak, ALHAOn argitaratuko den ebazpenaren bidez. Ebazpen horren aurka interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko diote Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).